

## **GASTEIZTARRAK ARRAUN THE WORLD UDAKO ARGAZKI-HIZKI LEHIAKETA, 2016**

### **OINARRIAK**

**1) GAIA:** 2016ko udan munduko edozein txokotan bizitako bidaia, txangoa, egun-pasa... argazki eta hitzen bitartez kontatu.

### **2) PARTE HARTZEKO BALDINTZAK**

- Euskaldun orok har dezake parte lehiaketan, parte hartzaileak ez dute zertan Gasteizkoak izan.
- Parte hartzaile bakoitzak nahi beste argazki-sorta bidal ditzake. Saritua suertatzekotan lan bat baino ez da sarituko.
- Udazkenean argazki-sorta irabazleekin argazki erakusketa egingo da Oihanederren eta bidaien aurkezpen publikoak burutuko dira hiriko auzo desberdinetan. Lan irabazleen egileek erakusketan parte hartzeko eta aurkezpen publikoak prestatzeko eta egiteko konpromesua hartu behar dute. Horrela ez izatekotan, ez dute saririk jasoko.

### **3) LANEN NOLAKOTASUNA**

- 20 argazkidun argazki-sorta.
- Argazki-sorta eta argazki bakoitzari euskarazko izenburua jarri behar zaio.
- Argazkiak argitaratu gabeak eta jatorrizkoak izan behar dira.
- Argazkiek 300 ppx erresoluzioa izan behar dute (+/-) eta JPG edo PNG formatuan aurkeztu behar dira.
- Argazki-sortarekin batera egindako bidaia, txango edo egun-pasaren azalpen laburra bidali behar da (1500-2000 karaktere artekoa)
- Ez dira kontutan hartuko izenburu eta azalpen testurik gabeko lanak

### **4) LANEN BIDALKETA**

- Lanak bidaltzeko epea: 2016ko ekainaren 22tik irailaren 22ra bitartean, biak barne
- **oihaneder@oihaneder.eus** emailera bidali
- Posta elektronikoaren gaia: *“Gasteiztarrak Arraun The World”*

Fray Zacarías Martínez – 2, Vitoria-Gasteiz  
T. 945 16 16 16 (3438) - M. 615 98 68 32 - oihaneder@oihaneder.eus  
[www.oihaneder.eus](http://www.oihaneder.eus)

- Argazkiak eta azalpen testua bidaltzearekin batera, honako datuak zehaztu behar dira emaillean: izen-abizenak, adina, harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoa.

## 5) EPAIMAHAIA eta EPAIA

- Oihaneder Euskararen Etxeko teknikari batek, Gauekoak-eko beste batek eta Gasteizko hainbat euskara elkartetako kideek osatuko dute epaimahaia.
- Epaia irailaren 30ean argitaratuko da Oihaneder Euskararen Etxeko eta Gauekoak-eko webgunean ([www.oihaneder.eus](http://www.oihaneder.eus)) eta emaillez ere jakinaraziko da.
- Epaimahaiak baloratuko duena:
  - Argazkien originaltasuna, gaiarekiko lotura, kalitate artistikoa eta teknikoa.
  - Argazki-sorta eta argazki bakoitzaren izenburua.
  - Bidaia, txango, egun-pasaren azalpen testua.

## 6) SARIA

- Lau sari emango dira guztira.
- Sariak ezingo dira metatu.
- Sari bakoitzak 300 €ko balioa izango du, abenduan Durangoko azokan asteburu pasa egiteko.
  - 2 pertsonentzako bi gautako egonaldia Durango ondoko Garaiko landetxean (150 €)
  - Durangoko azokan gastatzeko 150 €ko bonoa.
- Sariak bi kategoriatan banatuko dira:
  - 18-30 urte bitartekoen artean 2 sari (Gauekoak-en eskutik)
  - 30 urtetik gorakoaren artean beste bi (Oihanederren eskutik)
- **Argazki erakusketa:** Saritutako lanekin udazkenean argazki erakusketa egingo da Oihaneder Euskararen Etxean. Argazki-sorta bakoitzetik 5-6 argazki aukeratuko ditu egileak erakusketan jartzeko. Erakusketa urriaren 6tik azaroaren 1era egongo da ikusgai.
- **Aurkezpen publikoak:** Irabazleek bidaia, txangoa edo egun-pasaren aurkezpen publikoa egingo dute. Horretarako aurkeztutako argazkiekin aurkezpen bat prestatuko dute (PowerPoint, Prezi...). Oihaneder Euskararen Etxetik eta Gauekoak-etik, Gasteizko hainbat euskara elkarterekin elkarlanean, Gasteizko lau leku bilatuko dira aurkezpenak egiteko, auzo desberdinetan. Aurkezpenak urria eta azaroa bitartean egingo dira.

## 7) OHARRAK

- Lehiaketa edo oinarri hauei buruzko edozein galdera argitzeko honako posta elektronikora jo daiteke: [oihaneder@oihanedereuskararenetxea.eus](mailto:oihaneder@oihanedereuskararenetxea.eus) edo telefono hauetara deitu: 945 16 16 16 (3438) – 615986831
- Aurkeztutako argazkiak Oihaneder Euskararen Etxearen eta Gauekoak-en esku geratuko dira, eta argazki horiek erabili nahiz kopiatzeko eskubidea beretzat gordetzen du, betiere egilearen izen-abizenak aipaturik .
- Lehiaketara aurkeztutako zenbait argazki Oihanederren eta Gauekoak-en sare sozialetan erabiliko dira lehiaketaren zabalkundearen laguntzeko.
- Lehiaketaren antolatzaileek argazkien baliozkotasuna erabakiko dute, eta argazkiren batek baldintza teknikoak betetzen ez baditu edo arrazoiren batengatik (iraingarria izateagatik, esaterako) lehiaketaren izaerarekin bat ez datorrela uste bada, ez argitaratzea erabaki ahalko da.
- Parte hartzeak oinarri hauek guztiak, bai eta epaimahaiaren erabakiak ere, onartzen direla dakar berekin.
- Antolatzaileek bere esku izango dute oinarri hauetan jaso ez den edozein gorabehera ebaztea.

\*Ematen ari zaren datuak erakunde honek dituen “JARDUEREN KUDEAKETA ETA ZABALKUNDEA” fitxategi automatizatueta sartuko direla jakinarazten dizu Gasteizko Udalak / Oihaneder Euskararen Etxeak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzko 15/1999 Lege Organikoa, abenduaren 13koa, betetze aldera. Udalak / Oihaneder Euskararen Etxeak bere eskumenen alorrean antolatzen dituen interes kultural edo sozialeko jarduerak kudeatu, ezagutarazi eta sustatzea da fitxategi horien helburua. Zure eskubideez baliatu nahi baduzu —dagozkizun datuak ikusi, aldatu, ezeztatu edo kontra agertu—, jo ezazu Udalaren Argibide Bulegora —Teodoro Dublang Margolariaren kalea, 25 - 01008 Vitoria-Gasteiz— edo herritarrei laguntzeko bulegoetakoren batera.